

horoskopoa

telebista - irratia

OSKORRI TALDEAK AUKERATUTAKO HERRI KANTUAK ABESTUKO DITUZTE GONBIDATUEK

'Hator kantari, hator' Gabon gauean

■ Kulturean, kirolean, politikan eta beste hainbat esparrutako jende ezagunek euskal kanta herrikoiak abestuko dituzte. Besteak beste, Jose Antonio Ardanza EAEko lehendakaria eta haren emazte Gloria Urteaga, Patxi Eugi pilotaria eta Javier Clemente entrenatzailea ariko dira kantari.

Erredakzioa / Donostia

GABON gauean, hamaika eta erdietatik aurrera, *Hator kantari, hator* saio berezia eskainiko du Euskal Telebistako lehen kateak. Saio hori ETB1eko programazioan klasiko bat bihurtzeko atarian da. Hala, aurten ere, kulturean, kirolean, politikan eta bestelako alorretan ezagunak diren euskal gonbidatuak kantari ikusteko aukera izango da.

Betiko legez, Oskorri folk talde bikainak hautatu du gonbidatutako pertsona famatuak kantatuko duten erreperitorioa. Oraingoan ere herri abestiek osatu dute Oskorrikoek kanta bilduma. Hala, bide batez, segida emango diote duela bi urte Euskal Herriko herri kanta zaharrak berreskuratzeko asmoz hasitako egitasmoari. Izan ere, *Hator kantari, hator* musika ikuskizunak *Oskorri & The Pub Ibiltaria* zeritzan proiektuaren filosofian oinarritzen baita.

Natxo de Felipek zuzentzen duen taldeak jendearen artean kantatzeko eta dantzatzeko, parte hartzeko finean, ohi-tura errotu nahi du; sasoi batean oso zabaldua zegoen jarrera bat berreskuratu, nolabait. Halako jaialdiek Irlandan egiten diren kutsua dute. Hango tabernetan kantatzeko eta dantzatzeko ohi-tura handia baitago zerbitzu hartzen den bitartean.

Kepa Junkera akordeoi jolea eta Ramon Saizarbitoria idazlea ere gonbidatu dituzte Os-



Euskal gizartean aski ezagun diren pertsonak parte hartuko dute *Hator kantari, hator* saioan.

korriko kideek elkarrekin gauza politen bat egiteko.

Gizarteko alor ezberdinetako gonbidatu anitz • Gure artean aski ezagunak diren pertsonak kantuan ikusteko parada izango da *Hator kantari, hator* saioan.

Hala, politikarien artean, Jose Antonio Ardanza Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakaria nabarmen dezakegu. Ardanzak eta haren emazteak, Gloria Urteagak, euskal kanta zahar bat abestuko dute elkarrekin.

Kirol alorreko hainbat gonbidatuek ere kanturako duten dohain bereziaren berri emango digute. Futbol mundutik euskaraz kantatzera anima-

tuko diren artean Etxeberria, Satrustegi, Dani eta Astarbe topa ditzakegu. Guztiak euskal talde handienetako futbol jokalaririk ohiak. Entrenatzaile bat ere izango dugu. Hala, Javier Clementek, egun Betis Andaluziako taldea entrenatzen ari den barakaldarrak, ahotsa mingaina bezain ondo dantzatzen ote duen ala ez erakutsiko digu.

Mikel Goñi eta Patxi Eugi pilotari nafarrek ere kantatuko dute Oskorri taldeko kideek hautatutako abesti bat, elkarrekin kantatu ere. Miguel Etxabarri Banestoko zuzendaria eta Julian Gorospe txirrindulari ohiak izango dira ziklismoaren ordezkariak. Juanito Oiarzabal ere Himalaya

aldean igotzeko geratzen zaion azken zortzimilakoa apur batez bazterrean utzi eta Zeledonekin batera zerbait kantatzera animatuko zaigu.

Hitza eta musika eguneroko ogi dutenak ere ez dira faltako. Tartean Manuel Lasarte bertsoalaria eta Erramun Martikorena kantaria izango dira. Baigorriko ahotsak emaztearen laguntza izango du.

Luis Goiri ikastolen hastapenetan irakasle gisa jardun zuenaren partehartzea izango da gaueko hunkigarrietakoa; 84 urte ditu berak.

Lucia Etxebarria idazleak, Andoni Erburu aktore gazteak eta Anne Igartiburu eta Felix Linares aurkezleek ere kantatuko dute Gabon gauean. X

t . x . o . r . i . t . x . o . a . r . i . m . o . k . o . k . a

Ni eta bera

AURREKO astean etxean nengoela telefonoak jo zuen. «Sara Lostau zara?», zioen ezaguna (edo) egiten zitzaidan ahots batek. Nik baietz erantzun nion arren, ez naiz Sara Lostau, noski. Sara Lostau izenaren ahoskera Sharon Stonerenarekin nahastu nuen. Eta ez naiz Sharon Stone ere. Inozentada bat zelako ustetan erantzun nuen baiezkor. Argi eta garbi, ez naiz joan den egunotan nire ordezkari sinatu duen identitate misteriozkoa. Emakume bizarduna izateko gero eta posibilitate gehiago daukat. Baina, zoritxarrez, Gregorio Sam-sari gertatu zitzaion legez, gaur goizean Ines Intxausti zomorroa nintzelako haluzinazioarekin esnatu naiz berriro ere. Gabonetako alkohola izango zen...

Goazen ba albiste positibistak aztertzen. Villabonan jauzi da neguko *mana* ekonomikoa. Naturaren legeak gizakia baino azkarragoak dira. Sari horrekin Euskal Herrian

jokatu den diru mordoia etxera itzuli dela pentsa dezakegu sinpletasun inozo osoarekin. Hala eta guztiz ere, gure etsaiek ez dute lorik egin horretaz pentsatzen. Luis Del Olmok Villabona Araban ez baizik eta Gipuzkoan dagoela jakin zu(z)enean mihia berez zorrotzu zitzaion. Jose Mari Callejari Villabonari buruz galdetu zitoten —gizonak Euskal Herrian bizitzeagatik edozein iritzi jaurti dezake *patente di corso* horrekin—. Pucelarrak, potroak bere lekuan mantendurik, erantzun zuen Villabona dirurik behar ez duen herria dela. Eta zer daki berak? Bihar Juan Carlos Rodriguez Ibarak Extremadurako *cancerbero*-ak Euskal Herrian tokatu den dirua Espainia osoan banandu behar dela eskatuko du Konstituzioaren irakurketa hegazkor libre bat eginez. Amorrúa eman die loteriaren zori

kapritxosoa guregana heltzea. Ez dute Euskal Herrian poztasun txiki-ena ere ikusi nahi. Zorionez, etengabeko amorru bizi eta itxi batean bizi dira benetako gorrotoaren jabe izateko.

Eta beste albiste on batekin bukatuko dut artikulua hau (oso *irratiarra* atera zait ezta?). Euskal Herriko selekzioaren partidua ere ez dute batere gogokoa izan *españolitoek*. Are gutxiago Jose Maria Arrateri entzundako hitzak. Futbola alde batera utzirik, politikaren areara mugitu zuen bere diskurtsoa, inoiz baino egokiago, gainera. Bakea behar dugu, eta prest gaude eskuratzeko eman behar diren bortsu urrats aitzina eta gehiago emateko. Horren aldean EAEko lehendakariak bota dituen urte bukaerako diskurtsoak biberoiak dira. Jose Mari Arrate gure hurrengo lehendakaria izan dadila eskatuko diot Olenzerori. Hala izan bedi!

Ines Intxausti

efemerideak

Bilboko setioak porrot egin zuen

1836. urteko abenduaren 24an Espartero jenerala liberalak karlistek Bilbo hiriarri bitartean aldiz ezarri zioten setioa bertan bertan utzi zuen. Esparterok Lutxanako zutela eta Bilbo inguratzen zuten gotorlekuak hartu zituen, Karlos erregegaiaren armak guztiak zapuztuta geratu ziren. Karlistentzat Bilbo Euskal Herriko liberalen hiribolua zen. Bizkaiko hiriburua konkistatzea funtsezkoa zen haientzat. Porrotaren ostean, karlistek bat-batean ekin zitoten erretiratzeari. Ihesean, soldadu eta arma guztiak utzi zituzten zelaian.

1881. Frantzisko Febok Nafarroako foruen burua egin zuen Tuteran.

1836. Francisco Espoz eta Mina jenerala hil zen.

KANTUAK
Abone, Adalsinda, Luziano, Paulo.

Uxue Agirre